

**809/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 6KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ADMINISTRAZIOKO ETA ERABILTZAILEREAREN ARRETAKO LAGUNTZAILE LANPOSTU bat BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN / ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZUZENDARIORETZA.**

**LANPOSTUA:** Administrazioko eta Erabiltzailearen Arretako Laguntzailea.

**DESTINOA:** Zuzendaritza Nagusia, Aholkularitza Juridikoko zuzendariordetza.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

**ESKAKIZUNAK:** (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude).

**Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:**

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea eta lanpostua jabetzan izatea Zuzendaritza Nagusian Administrari Laguntzaile kategorian.

- Mugikortasun horizontalaren xede diren destinoen kategoria / lanpostu funtzional bera izatea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:**

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea.

- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.

- Ez izatea karrerako funtzionarioko, estatutupeko langile finkoko edo lan-legepeko langile finkoko izendapenik Administrari Laguntzaile kategorian, izendapen edo kontratu horrekiko interesdunak daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.

- Zuzendaritza Nagusiari langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.

- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko bezala, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.

- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulua izatea eta iragarritako azken EPEan kategoria honen deialdiaren oinarrietan ezarritako gainerako titulu-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:**

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo lan-legepeko langile finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Administrari Laguntzaile kategorian.

- Zerbitzu aktiboan izatea, eta lanpostuak betetzeko eskabidea egin izatea norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakunde ez den zerbitzu-erakunde batean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**MEREZIMENDUEN BAREMOA** (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

**Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:**

-Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabalitzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

**Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:**

-EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu).

-Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabalitzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

**Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:**

-Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabalitzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.



**EUSKARAREN EZAGUTZA:**

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 18ko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritu egingo da.

**ESKABIDEAK AURKEZTEA:**

Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiak, curriculum vitae dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenean izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**LEHENTASUN-HURRENKERA:**

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

- 1.– Behin betiko barne-mugikortasuna Zuzendaritza Nagusian. Sistema horren bidez ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
- 2.– Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema horren bidez ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
- 3.– Zerbitzu-eginkizunak. Sistema horren bidez ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 4.– Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

**BALORAZIO BATZORDEA:**

Balorazio Batzordea osatuko da. Batzordeburua Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo hark eskuordetzen duena izango da, eta hauexek izango dira batzordekideak: Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritzako Idazkaria eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako goi-mailako teknikari bat (azken hori idazkaria izango da).

**HAUTAKETA-PROZEDURA:**

Interesdunek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Balorazio Batzordeak. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

**EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:**

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 5a.

 **Osakidetza**  

---

Josune Retegi Ormazabal  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaria,  
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.